EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

# EUDELEN AKORDIOA, ADOPZIO IRREGULARREI ETA LAPURTUTAKO HAURREI BURUZKOA

Azkenaldian hainbat kexa eta salaketa zabaldu dira hedabideetan, aurreko hamarkadetan zenbait ama biologikori umeak lapurtu edo legez kanpoko eran kendu zizkietela-eta. Albiste horiek alarma sozial larria eragin dute euskal gizartean, eta botere publikoek ezin dute axolagabe agertu horien aurrean. Horren harira, beharrezkoa da erakunde guztiek elkartasuna erakustea jaioberrien lapurketek eta legez kanpoko adopzioek ukitutako familiei, baita horiek egia jakiteko duten eskubidea babesteko laguntza eskaintzea ere.

Gurean, *SOS Haur Lapurtuak Euskadi* elkartea lanean ari da gertakizun horiek argitzeko, eta, EUDELi eta beste hainbat erakunderi jakinarazi diotenez, traba eta zailtasun ugari dituzte jaiotzen, adopzioen edo, hala dagokionean, heriotzen gaineko informazioa biltzeko, ez zirelako behar bezala erregistratu, paper-sortak desagertu egin direlako edo trabak dituztelako eskatutako informazioa eskuratzeko.

Salatutako gertakizunak argitzeko asmoz, eta kaltedunek egia jakiteko exijitutako eskubidea bermatzeko helburuz, Euskadiko erakundeek hainbat neurri hartu dituzte, besteak beste, honako hauek:

-**Arartekoaren uztailaren 13ko 1/2011 gomendio orokorra**; bertan, *“gertakizunak argitzea“* ahalbidetzen duten neurriak hartzeko beharra azpimarratzen da, eta *“kaltedunen parte-hartzea ahalbidetzen duen prozedura”* ebaztea gomendatzen da.

-**Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 16ko Legezkoa ez den 13/2012 proposamena**, lapurtutako jaioberrien kasua argitzeko beharrari buruzkoa; besteak beste, *“1940 eta 1990. urteen bitartean lapurtutako haurren eta egindako legez kanpoko adopzioen kasuen inguruko ikerketa batzordea“* sortzea adosten du.

-Lapurtutako haurrei eta legez kanpoko adopzioei buruzko **Gipuzkoako Batzar Nagusien otsailaren 10eko 15/2012 Ebazpena**; horren bitartez, udal eta bestelako erakundeei hainbat neurri hartzeko eskatzen zaie, kasu horietako kaltedunei eta biltzen dituzten elkarteei dagokienez.

-Ildo berean, gaur egun proposamen bana ari dira izapidetzen, hala **Bizkaiko Batzar Nagusietan** nola **Arabako Batzar Nagusietan**.”

Bestalde, **Asociación de Municipios Vascos / Euskadiko Udalen Elkartea**, **EUDEL erakundeak** *SOS Haur Lapurtuak Euskadi elkartearekin* egin du lan azken asteotan, arazoak zuzenean ezagutzeko asmoz, eta irtenbideak eta lankidetzarako bideak prestatu ahal izateko.

Aurreko guztiaren arabera, eta aipatutako erakundeek onartutako ekimen, ebazpen eta proposamenekin bat etorriz, **Asociación de Municipios Vascos** / **Euskadiko Udalen Elkartea**, **EUDEL erakundeak** 2012ko martxoaren 15eko Batzorde Betearazlean bilduta, honakoa **adostu du**:

**LEHENENGOA.-** Aurreko hamarkadetan zenbait ama biologikori haurrak lapurtu edo legez kanpoko eran kendu zizkieten kasuetan kalteak jaso dituzten pertsonei adiskidetasuna eta elkartasuna adieraztea.

**BIGARRENA.-** Gertakizunak argitzeko asmoan babesa ematea, eta erakunde arteko lankidetzan parte hartzeko nahia agertzea, kaltedunek egia jakiteko eta kalte-ordaina jasotzeko duten eskubidea bermatzeko.

**HIRUGARRENA.-** Deialdi hau Euskadiko udal guztiei helaraztea eta, zehazki, honako neurriak hartzeko gomendioa **helaraztea udalei**:

1. Gainerako erakundeekin aldeko eta elkarkidetzazko jarrera erakustea, gertakizunak argitzea bermatzeko asmoz, eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzan sortzen den Ikerketa Batzordearekin elkarlanean aritzea, aipatutako Batzordearen helburuak bete daitezen.

2.- Kaltedunei edo horiek biltzen dituzten elkarteei sartzea ahalbidetzea udalerrian aurretik egondako amaetxe edo klinika pribatuen dokumentu eta erregistroetara.

3. Kaltedunek edo horiek biltzen dituzten elkarteek aurkeztutako informazio-eskaeren izapideak bizkortzea, eta hilerrietako dokumentu, artxibo edo erregistroetara sartzea ahalbidetzea, zehatz-mehatz, erditze-liburuetara eta haur-liburuetara, indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Bilbon, 2012ko martxoaren 15ean

EUDEL
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

# ACUERDO DE EUDEL SOBRE ADOPCIONES IRREGULARES Y BEBES ROBADOS

En los últimos tiempos ha trascendido a la opinión pública la existencia de numerosas quejas y denuncias que hacen referencia a la sustracción o separación irregular de bebés de sus madres biológicas en décadas pasadas. Estas noticias han generado gran alarma social entre la sociedad vasca, ante la que los poderes públicos no pueden mostrarse indiferentes. En este sentido, se hace necesario que todas las instituciones mostremos nuestra solidaridad con las familias afectadas por el robo y adopción ilegal de recién nacidos, a la vez que ofrezcamos nuestra colaboración para salvaguardar el derecho a la verdad exigido por los afectados.

En nuestro ámbito, la Asociación *SOS Bebés Robados Euskadi* está dedicando sus esfuerzos al esclarecimiento de estos hechos y ha trasladado tanto a EUDEL como a otras Instituciones, su preocupación por la existencia de numerosos obstáculos y dificultades para recopilar información sobre nacimientos, adopciones o, en su caso, fallecimientos bien porque no se registraron adecuadamente, bien porque han desaparecido legajos o porque sufren trabas para poder acceder a la información solicitada.

En aras a facilitar el esclarecimiento de los hechos denunciados y con el propósito de garantizar el derecho a la verdad exigido por los afectados, las diversas instituciones del País Vasco han venido adoptando una serie de medidas, destacando entre otras, las siguientes:

-La **Recomendación general del Ararteko 1/2011, de 13 de julio**, en la que se hace hincapié en la necesidad de adoptar medidas que favorezcan *"el esclarecimiento de los hechos",* a la vez que se recomienda que se arbitre *"un procedimiento que permitiera la participación de las personas afectadas"*.

-La **Proposición no de Ley 13/2012, de 16 de febrero, del Parlamento Vasco,** relativa a la necesidad de aclarar el caso de los neonatos robados, acordando, entre otras medidas la creación de una *"comisión de estudio en relación con los casos de bebés robados y adopciones irregulares efectuadas entre los años 1940 y 1990".*

-La **Resolución 15/2012, de 10 de febrero, de las Juntas Generales de Gipuzkoa** sobre los bebés robados y adopciones irregulares por la que se insta a los Ayuntamientos y otras instituciones a adoptar diversas medidas con respecto a las personas afectadas por estos casos y a las asociaciones que las agrupan.

-En idéntico sentido, se están tramitando en la actualidad sendas propuestas tanto en **Juntas Generales de Bizkaia**, como en **Juntas Generales de Alava**.

Por su parte, la **Asociación de Municipios Vascos / Euskadiko Udalen Elkartea**, **EUDEL** ha trabajado en las últimas semanas con la Asociación *SOS Bebés Robados Euskadi* a fin de conocer de primera mano la problemática existente y poder articular posibles soluciones y vías de colaboración.

En virtud de todo lo anterior, y de conformidad con las diversas iniciativas, Resoluciones y Proposiciones aprobadas por las referidas instituciones, la **Asociación de Municipios Vascos** / **Euskadiko Udalen Elkartea**, **EUDEL** en Comisión Ejecutiva de 15 de marzo de 2012 **ACORDÓ** lo siguiente:

**PRIMERO.-** Manifestar su afecto y solidaridad con las personas afectadas por los casos de adopciones irregulares y sustracciones de bebés de sus madres biológicas ocurridos en las últimas décadas.

**SEGUNDO.-** Trasladar su apoyo en el esclarecimiento de los hechos, mostrando su disposición a participar en aquellas fórmulas de colaboración interinstitucional que puedan acordarse para garantizar el derecho a la verdad exigido por las personas afectadas, así como a su reparación.

**TERCERO.-** Hacer extensible este llamamiento a todos los Ayuntamientos del País Vasco y en concreto **trasladar a los Ayuntamientos** la recomendación de la adopción de las siguientes medidas:

1. Que muestren una actitud proactiva y de colaboración con el resto de instituciones a fin de garantizar el esclarecimiento de los hechos, y en concreto colaboren con la Comisión de Estudio que se contituya en el Parlamento Vasco para el cumplimiento de los objetivos de la referida Comisión.

2.- Facilitar a aquellas personas afectadas por estos casos o por las asociaciones que las agrupan, el acceso a documentos y registros relativos a las maternidades y / o clínicas privadas que hayan existido en el Municipio con anterioridad.

3. Agilizar la tramitación de solicitudes de información presentadas por las personas afectadas por estos casos o por las asociaciones que las agrupan y facilitar el acceso a documentos, archivos y registros de los cementerios y, en concreto, a los libros de partos y libros de párvulos, en consonancia con lo previsto en la legislación vigente.

En Bilbao, a 15 de marzo de 2012